



**Ander  
Elortegi  
Garatea**



## URAREN ZIKLOA



Doinua:

*Ilun ikarak azken argia  
Zortziko handia*

Ura da Lurra planetan zehar dagoen gai **magikoa** gardena eta H<sub>2</sub>O da egitura **kimikoa**. Jatorria zein den jakitea denez **berebizikoa** aterkipean ikas dezagun zein den **URAREN ZIKLOA**.

Ur geruzara heltzen denean eguzkiaren **distira** ur molekulak aztoratzeko beroa lagungarri da. Hortik sortzen den gasak duenez gorantz joateko **desira** kondentsatzen den lurrinarekin hodeiak osatzen dira.

Hodeiak daude ur tantaz edo izotz kristaltxo **eginak** baina airean mantentzen dira baitira oso **arinak**. Loditzen ditu tenperatura hotzagoen **eraginak** eta horrela sortu ohi dira zaparrada **desberdinak**.

Eurite gogor, zirimiria, txingorra edo **elurra**. Ibaia igo, lakua bete edo zuritu **gailurra**. Eguraldiko mapan tanta da Euskal Herriko **ikurra** horri esker da hain eder eta aberatsa gure **lurra**.

Makineria zoragarria izan daiteke **natura**. Sarri begira egoten gara itsasora zein **zerura**. Batzuk soberan ta beste batzuk faltan daukatenez **ura** behar bezala erabiltzea da gizakion **ardura**.